

NOIZ HIL ZEN AXULAR? (OHARTXOA)

Donostia, 1990-X-26

Endrike Knörr

Orain arte, Axularren heriotze-data aipatzerakoan Vinsonek dioena errepikatu izan da, hots: “Il y [i.e., Axular Saran] mourut le 8 avril 1644” (1). Axularren ikerleek eta biografilariek -haien artean, merezimendu handiz, Luis Villasante gailendu da-, eta euskal literaturaren bestelako kondairagileek ildo hori jarraitu dute (2). Iturri bakarreko berri hau berrestera dator honako nota labur hau.

Parisko Bibliothèque Nationalean, eskuizkribuen sailean, bi liburukitan, d’Abbadieren gutundegia dugu (3). Bigarreanean, paper txatal batek honako hau dio:

“Sare. Extrait du Régistre de Décès de l’Eglise.
Le huit avril mil [sic] six cent quarente quatre
décéda maïstre Pierre d’Axular Curé de Sare”.

Ez dirudi hildakoen liburu hori guraganaino gorde denik. Baina gutienez bi iturriek gauza bera diote. Orobat Sarako elizan dugun Axular osaba-iloben tunbak:

“Monument de Messieurs D’Axular Oncle et Nepvev.
Dignes cures de ce lieu. Descederent en l’an 1644 et 1653”.

(1) *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris 1891, 89.

(2) Ikus Villasanteren *Historia de la literatura vasca*, Bilbo 1961, 75, eta *Axular, mendea, liburua, gizona*. Jakin, Oñati 1972, 50.

(3) *Nouvelles Acquisitions Françaises*. 21746-48.